BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1724

EBAZPENA, 2013ko apirilaren 10ekoa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuak 2012ko apirilaren 10eko Aginduaz araututako laguntzak emateko deialdia. Laguntza horiek: «Global Training» beken programa (2013ko ekitaldirako) martxan jartzeko gaitasuna duten erakundeentzakoak.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2012ko apirilaren 10eko Aginduaren bitartez, ondoko beka-programa martxan jartzeko gaitasun duten erakundeentzako laguntzen programa arautzen da: atzerriko enpresa eta erakundeetan praktikak –«Global Training» izenekoak– egin ahal ditzaten, goi-mailako lanbide-prestakuntza edo unibertsitate-titulazioa duten gazteentzakoa (2012ko apirilaren 13ko EHAA).

Aipatutako aginduaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da honako deialdia egitea: «Global Training» beketarako deialdia (2013ko ekitaldirakoa) egingo duten erakundeak hautatzeko dena.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 6. artikuluan ezarritako ahalmenaren indarrez, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Xedea.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2012ko apirilaren 10eko Aginduaren bitartez arautu zen honako hau: Laguntza horiek: «Global Training» beken programa (2013ko ekitaldirako) martxan jartzeko gaitasuna duten erakundeentzako laguntza-programa.

Bigarrena.–Baliabide ekonomikoak.

Deitutako laguntzak finantzatzeko, 3.200.000 erabiliko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legean hartarako ezarritako aurrekontu-kredituaren kargura.

Deialdi honen kargura emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira ez da izango artikulu honetan finkatutako diru-zenbatekotik gorakoa edo hori emendatzetik ateratzen denetik gorakoa, betiere indarreango legerian aurreikusi aurrekontuaren aldaketaren edo kreditu-loturaren erregimenarekin bat etorriaz. Eta, kasua bada, zirkunstantzia hori argitara emango da, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearen ebazpen bidez eman ere.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko betekizunak, lekua eta epea.

1.– Laguntzak jaso ahal izateko, erakunde estatzaileek honako betekizunak konplitu beharko dituzte: aipatu agindu arautzailearen 3. artikuluan ezarritakoak.

2.– Eskabide egoki bete eta aurkeztea, eta eskatutako dokumentazio osagarria aurkeztea, honelaxe egin beharko dute programa honetan parte hartzen duten erakundeek: programa arautzeko Aginduaren 7. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz:

3.– Deialdiko baketerako eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2013ko maiatzaren 13an amaituko da (argitarapen egin eta hurrengo egunetik hara, gutxienez, hilabete bat).

4.– Agindu arautzailearen 4. artikuluan xedatutako betetzearren –diru-laguntza gastuak zehazteari dagokionez– ebazpen honen I. eranskinean honako Oinarrizko Programa ezartzen da: eman behar den prestakuntza espezifikorako kurtsoena. Bestalde, II. eranskinean praktikaren hileko dotazioaren zenbatekoa ezartzen da.

Agindu arautzailean ezarritakoarekin bat etorriaz, Gizarte Segurantzarako egin beharreko kotizazioak kenduko dira dotaziotik.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 10a.

Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordea,
ESTÍBALIZ HERNÁEZ LAVINA.

I. ERANSKINA

Aurretiko Prestakuntza Kurtsoaren eduki minimoak:

– Iraupena: 40 ordutik 60 ordura bitartekoa.

– Prestakuntza horrek honako gai hauek izango ditu, bestek beste:

1.– Zelan jorratu atzerrian praktika.

2.– Negoziazio kulturartekoa.

3.– Komunikazio teknikak.

4.– Taldean lan egitea.

5.– Adimen emozionala.

6.– Berrikuntza.

7.– Beste batzuk, praktika motaren arabera.

II. ERANSKINA

Dotazioa, hileko balio unitarioan, zehazki, beka guztientzako erabilgarri den aurrekontua kontuan izanik kalkulatutakoa.

Hileko dotazioa: 1.124,77 euro.

Agindu arautzailearekin bat etorriaz, dotazio ekonomiko horren bitartez, honako gastu hauei egingo zaie aurre: EAEtik destinoko herrialderako joan-etorriak; mantenua, ostatua, eta Gizarte Segurantzarentzako kotizazioak; eta, halaber, beharrezko bada, bisatuak eta txertoak lortzea ere.